




Euskadiko inflazioa %3,2ra jaitsi zen apirilean

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

INEren arabera, **inflazioa %3,2koa izan zen apirilean, martxoan baino bi hamarren gutxiago**. Energiak goranzko presioa egiten jarraitzen du, urte arteko %5,2ko tasarekin, nahiz eta neurri fiskalek eta urtarokotasunaren eraginak energiaren prezioa %4,0 merkatu zuten martxoarekin alderatuta. Hala ere, erregaiek garrarioaren kostua %6,2 igo zuten urte batetik bestera. Azpiko inflazioa bi hamarren jaitsi zen %2,8ra, zerbitzuen moderazioagatik.

Atzerritarren afiliazioak errekor berria ezarri du

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Atzerritarren kopurua




Iturria: Gizarte Segurantza.

Apirilean, Euskadin, atzerritarren Gizarte Segurantzako afiliazioa %9,1 igo zen urte batetik bestera, 107.000 afiliatu baino gehiagorekin. Horrela, serie historiko osoko daturik onena lortu zuen. Balio horiek Euskadiko atzerritarren afiliazioaren hazkunde iraunkorra berresten dute, 2025eko apirilean baino ia 9.000 afiliatu gehiagorekin.



Aireko trafikoa sendo hazi egin da apirilean

Euskal aireportuak. Bidaiariak
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: AENA

Apirilean ia 778.000 pertsonak bidaiatu zuten Euskadiko aireportuetatik. Balio hori % 12 igo da aurreko urteko aldi beraren aldean, nahiz eta aurten Aste Santuko lehen bi egunak martxora aurreratu ziren, iaz ez bezala. Datu hau oso positiboa da, eta apirileko aire trafikoa hazkunde iraunkorra berresten du.

Euskal ekonomiaren termometroa 99,7an kokatu da

Euskadiko ekonomiaren termometroa
Indizea



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza

Euskal ekonomiaren termometroak 99,7ko balioa izan zuen apirilean, eta hazkunde leunaren ingururaino jaitsi zen. Barne eskariak jarduera bultzatzen jarraitzen du, kontsumo sendoarekin eta ziurgabetasunari eusten dion inbertsioarekin. Sektoreka, hazkundera moteldu egin da zerbitzuen bilakaera apalagoagatik; eraikuntzak eutsi dio eta industriak hobera egin du.